

**UDALAK 2011ko AZAROAREN 29AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

**BATZORDEKIDEAK:**

**ALKATEA:**

Luis Intxauspe Arozamena jn.

**ALKATEORDEAK:**

Gloria Mendinueta Yeregi and.

Idurre Conde Santa Cruz and.

Asier San Emeterio Otegui jn.

**ZINEGOTZIAK:**

Miren Kistiñe Lujanbio Galdeano and.

Aitor Miner Aginaga jn.

Iker Goenaga Gubia jn.

Beñat Amenabar Perurena jn.

Nahiara Sanchiz Arregui and.

Estefanía Morcillo Cerdan and.

Jose Ramón Chica Ramirez jn.

Joser Pérez Dominguez jn.

Andoni Amonarraiz Gómez jn.

Jose Antonio Cuesta Sole jn.

Maria Otaegi Velez and.

Iñaki Arratibel Olaziregi jn.

Iñaki Barrio Sagastume jn.

2011ko azaroaren 29an ohiko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bilera Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Arantxa Urain Mendiburu idazkaria.

**KONTU HARTZAILEA:**

Antxon Garcia Nadal jn.

**IDAZKARIA:**

Arantxa Urain Mendiburu and.

**1.- AKTA ONARTZEA: 2011-10-26.** Alkate lehendakariak jakinarazi du aktak itzulita bidaltzea eskatu duten korporazioko kideei ez zaizkiela bidali koordinazio arazo bat izan delako. Hala, puntu hau hurrengo bilerarako utzi da.

**2.- 2011KO URRIAREN 21ETIK 2011KO AZAROAREN 24RA BITARTE HARTUTAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.** - 2011ko urriaren 21etik 2011ko azaroaren 24ra bitartean pertsona bakarreko honako organo hauek hartu dituzten ebazpenen berri eman da.

- \* Alkate jn.
- \* Zerbitzu Publikoetako delegatu jn.
- \* Kiroletako delegatu jn.
- \* Hezkuntza eta Enpleguko delegatu and.
- \* Politika Sozialeko delegatu jn.

**3.- HERNANIKO UDALAREN AURREKONTUAREN 14/2011 ZENBAKIKO KREDITU ALDAKETAKO ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA (KREDITUEN HABILITAZIO BIDEZKOA).** Alkatetzak 2011ko urriaren 19an emandako ebazpenaren berri eman da. Ebazpen horren bidez **14/2011** zenbakiko kreditu aldaketako espedientea onartu zen, Hernaniko Udalaren 2011ko aurrekontuaren kredituen habilitazio bidezkoa. Kopurua: **26.141,10 euro**.

**4.- HERNANIKO UDALEKO AURREKONTUAREN 15/2011 ZENBAKIKO KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA (KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKOA).** - Hernaniko Udal Aurrekontuko kredituen aldaketarako **15/2011** espedientearen (kreditu gehigarrien bidezkoa) berri eman da. Espediente hori Alkatetzak 2011ko urriaren 21ean hartutako ebazpen bidez onartu zen eta **142.671** eurokoa da.

**5.- FORU KONTRATAZIOAREN ZENTRALAREN BITARTEZ ENERGIA ELEKTRIKOA HORNITZEKO ESPARRU AKORDIO ERATORRI ONDOREN, HERNANIKO UDALAREN ESLEIPENA ADOSTEA.** - Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzeaz baliatuz, Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko foru diputatuak 2011ko urriaren 10eko foru aginduaren bitartez, IBERDROLA GENERACION SA (IFZ.:A95075586) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez argindar elektrikoa hornitzeko esparru akordioa (X11028) burutzea erabaki zen.

Hernaniko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikularekin araberan, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa sinatu ondoren, Ur eta Argi zerbitzuburuak 2011ko azaroaren 17an emandako txostenaren araberan proposatu du hornikuntza elektrikoko kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Hernaniko Udalak izandako argindar kontsumo zenbatetsia kontuan izanik, gutxi gorabehera, urteko 580.000 euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe. Gastuak segidako tratu izaera iraunkorra du, konpromiso kreditu gaiari dagokion finantza eta aurrekontu xedapenen ondorioetarako.

Hori dela eta, Sektore Publikoetako Kontratuen 30/2007 Legearen 182. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua IBERDROLA SA enpresari esleitzea, sinatutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Aztertu da Zerbitzu Publiko eta Merkataritza Batzordeak 2011ko azaroaren 25ean emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

**LEHENENGO.-** Foru Kontratazio Zentralaren bitartez energia elektrikoa hornitzeko esparru akordiotik eratorritako kontratua (X11028) IBERDROLA GENERACION S.A. enpresari (IFZ.:A95075586) ESLEITZEA, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan. Proposamen honi atxikitzen zaio, 2011ko irailaren 12ko data duen akordioaren laburpena, prezio unitarioak eta aldiak zehazten dituen, eta oinarritzko izaera duena.

**BIGARREN.-** Baimentzea eta xedatzea IBERDROLA GENERACION SA, N.I.F.:A95075586, enpresaren alde, aurtengo ekitaldiari dagokion gastua, 222.01 "Argindarraren horniketa" kontusailaren kargura

HIRUGARREN.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzeko ahalmena ematea Hernaniko Alkateari.

**6.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIAK 1033/10-1 PROZEDURAN EMANDAKO AUTOAREN BERRI EMATEA. PROZEDURA HORI SAN MARKOSEKO MANKOMUNITATEAK 2010-7-5EAN EMANDAKO EBAZPENAREN AURKAKO ERREKURTSOA DELA ETA HASI ZEN (EBAZPEN HORREN BIDEZ ESTATUTUAK ARGITARATZEA ERABAKI ZEN).** - Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 1033/10-1 prozeduran emandako autoaren berri eman da. Prozedura San Markoseko Mankomunitateak 2010-07-5ean emandako ebazpenaren aurkako errekurtsoa dela eta, hasi zen. Ebazpen horren bidez estatuak argitaratzea erabaki zen.

“Parte dispositiva:

1.- Se declara terminado por desistimiento el presente recurso interpuesto por el Procurador Sr. German Apalategi Carasa, en representación del Ayuntamiento del San Sebastian contra la actuación administrativa referenciada.

2.- Sin costas.”

**7.- SAN MARKOSEKO MANKOMUNITATEAREN ARTEAN AGINPIDEEN BANAKETA BESTE MODU BATEAN ANTOLATZEARI BURUZKO ETA LANKIDETZA HITZARMENARI BURUZKO ERREKURTSOA DELA ETA HASITAKO PROZEDURAN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIAK EMANDAKO AUTOAREN BERRI EMATEA.** - San Markoseko Mankomunitatearen artean aginpideen banaketa beste modu batean antolatzeari buruzko eta lankidetzaz hitzarmenari buruzko errekurtsoa dela eta, hasitako prozeduran Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak emandako autoaren berri eman da.

“Parte dispositiva:

1.- Se declara terminado por desistimiento el presente recurso interpuesto por el Procurador Sr. German Apalategi Carasa, en representación del Ayuntamiento del San Sebastian contra la actuación administrativa referenciada.

2.- Sin costas.”

**8.- (HI) SG..04 (SAGASTIYA) SEKTOREKO 8, 9, 10 ETA 11 LURSAILETAKO XEHETASUN AZTERLANA BEHIN BETIKO ONARTZEA, IZA OBRAS Y PROMOCIONES, S.A.K AURKEZTUA.** - Tokiko Gobernu Batzarrak, 2011ko irailaren 23an egindako bileran, erabaki zuen (HI) SG.04 (Sagastiya) Sektoroko 8, 9, 10, 11 lursaileko Xehetasun Azterlanari hasierako onarpena ematea eta espedientea jendaurrean jartzea 20 egunez.

Espedientea jendaurrean ikusgai egon den bitartean inork ez du alegaziorik aurkeztu.

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak 2011ko azaroaren 14an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

1.- (HI) SG.04 (Sagastiya) Sektoroko 8, 9, 10, 11 lursaileko Xehetasun Azterlanari behin betiko onarpena ematea.

2.- Behin betiko onartzeko erabaki hau GAOn argitaratzea.

**9.- ORONA, S.COOP.EK ETA PARQUE TECNOLÓGICO DE SAN SEBASTIAN, S.A.K AURKEZTUTAKO 10.5 SEKTOREKO (GALARRETA) PLAN PARTZIALAREN 2. ALDAKETAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.** - Egin beharreko legezko izapidetzea egin ondoren, 2010eko urriaren 28ko osoko bilkuran 10. eremuko (Galarreta) eta LH-23.5 areako (Sorgintxulo) zati baten Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala behin betiko onartu zen, gerora 2011ko apirilaren 11n behin betiko onartutako Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren xedapenen artean sartu zena.

Dokumentu horren xedapenak garatze aldera, aldi berean 10.5 Sektorearen (Galarreta) Zatiko Plana izapidetu zen, Donostiako Parke Teknologikoa SA-k eta Orona SCoop-ek sustaturikoa. Eta testu bategina 2010eko urriaren 28ko osoko bilkuran onartu zen behin betiko.

Zatiko Plan horrek aldaketa bat izan zuen eta, legezko izapidetzearen ondoren, aldaketa hori 2011ko maiatzaren 19an egindako osoko bilkuran onartu zen behin betiko.

Bestalde, legezko izapidetzeak egin ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak 2011ko maiatzaren 24an egindako bileran behin betiko onartu zuen 10. 5 Sektorea (Galarreta) Urbanizatzeko Jarduketa Programa.

2011ko uztailaren 1ean emandako eskritura publiko bidez Orona S.Coop-ek eta Donostiako Parke Teknologikoa Hernaniko 10.5 Sektorea (Galarreta) Exekuzio Unitatearen Kontzertazio Batzordea eratu zen. Konpentsazio Batzorde hori irailaren 19an inskribatu zen Hirigintzako Erakunde Laguntzaileen Gipuzkoako Foru Aldundiko Erregistroan.

2011ko abuztuaren 12an Donostiako notario Jesús María Sanza Amurrio jaunaren aurrean egindako eskritura publiko bidez beste lurzoru titular bat sartu zen 10.5 sektorearen Kontzertazio Batzordean, baina kide egite hori administrazio egoitzaren batean formalizatu gabe dago oraindik.

2011ko irailaren 28an 10.5 Sektorearen (Galarreta) gaur egungo Kontzertazio Batzordeak sektorearen Zatiko Planaren beste aldaketa puntual bat aurkeztu zuen. Aldaketa horren helburua da sektorearen mugak doitzea, sektorearen errealitate fisiko eta partzelarioarekin bat etortzeko.

Horri dagokionez egindako txosten teknikoa aztertu da, eta baita ere Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 95 artikulua xedatzen duena.

Espedientea jendaurrean ikusgai egon den bitartean inork ez du alegaziorik aurkeztu

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak 2011ko azaroaren 14ean emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

**Lehena.-** 10.5 Galarreta sektorearen Zatiko Planaren 2. aldaketa behin betikoz onartzea. Plan hori LKS-Sestak eginga da, 2011ko irailean, eta Sektoreko Kontzertazio Batzordeak sustatua.

**Bigarrena.-** Plan Partzialaren kopia Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, Hirigintza Planeamenduko Administrazio Erregistroan gordetzeko.

**Hirugarrena.-** Legez egin beharreko argitalpenak egitea, bereziki Testu Bateginaren Hirigintza Arauena, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 89. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

**10.- HAINBAT UDAL ETXEBIZITZETAKO MAIZTERRAK ONARTZEKO ETA AUKERATZEKO OINARRIEN PLEGUA ONARPENA.** - Hernaniko Udala Txantxilla auzoko 12. zenbakiko atarian dauden hamar etxebizitzaren eta bakoitzari dagokion eranskinaren jabea da.

Etxebizitza merkatuan esku hartu nahian, eta merkatu librean sartzeko zailtasunak dituzten hainbat pertsoneri laguntzeko helburuz,

Horren inguruan egindako txostena ikusita, eta ondoko legedi honetan jasotakoa ikusita: Babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko Dekretuaren 2. artikulua (martxoaren 4ko 39/2008 Dekretua), Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen bigarren xedapen gehigarria (urriaren 30eko 30/2007 Legea) eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 86. artikulua (azaroaren 26ko 30/1992 Legea), hona hemen

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak 2011ko azaroaren 14ean emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

**Lehena.-** Hainbat udal etxebizitzaren maizterrak onartzeko eta aukeratzeko oinarrien plegua hastapenez onartzea

**Bigarren.-** Jendaurrean ikusgai jartzea, hogeit egunez. Horretarako, egin beharreko argitalpenak egingo dira.

**Hirugarrena.-** Jendaurreko informazio epean idazkirik edo alegaziorik aurkezten ez bada, erabakia behin betiko hartutzat ematea.

**11.- 2011KO AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUAREN 11. ARTIKULUA ALDATZEA.** – Aztertu da Ogasun eta Ondare Batzordea-Kontuetarako Batzorde bereziak 2011ko azaroaren 23an emandako irizpena.

Alkateak (Bildu) esan du egin nahi den aldaketa dela, alde batetik, alkatearen ordainsarrietan zuzenketa txiki bat egitea, lehen kalkulu akats bat egin zelako eta, bestetik, gobernu taldeko kide liberatuen ordainsariak egokitzea; liberatu bat gehiago jarri behar dutela ere gaineratu du, guztira 2,5 liberaziotik 3ra pasatuz (2 osoak eta bi erdi).

Euskal Sozialistak taldeko Morcillo andreak hau esan du:

Guk kontrako botoa emango dugu eta, besterik gabe, alkateak berak ekainaren 17ko osoko bilkuran esandako hitzak ekarriko ditut gogora: "Bildu koalizioa osatzen dugun kideei politikan edo Udaltxean aritzea borondatez herriarentzat egiten den lan bat bezela ulertzen dugu, horregatik, guk berderatzi zinegotzitik bi liberazio terdireriken arituko gara lanean, beraz egingo dugun lana orokorrean borondatean oinarritutako lana dela esan dezakegu."

Proposatutako aldaketa hau eta osoko bilkura hartan esandakoa kontraesanean daude.

Amonarraiz jaunak (EAJ/PNV) hau esan du:

Ulertzen dut %2ko akatsa egingo zela eta 3 liberazio behar izatea, baina kontrako botoa emango dugu izan ere 4 hilabetetan, batzordeak aurkeztu digun taularen arabera, ordainsariak %40 igoko dira, eta hori gehiegizko iruditzen zaigu. Gehiegizko iruditzen zaigu gobernu taldea osatzerakoan esan zenutena kontuan hartuta.

Arratibel jaunak (H1!) galdetu du ea baden arrazoren bat iguera hau hauteskundeon ondoren proposatzeko.

Alkateak erantzun dio Arratibel jaunari ez duela zerikusirik eta Morcillo andreari, berriz, ekainaren 17an esandakoa berresten dutela eta borondatezko lanean oinarritzen jarraitzen dutela, ordainsariak egokitu arren eta liberazio kopurua handitu arren.

Bilduko Miner jaunak hau esan du: (azalpenarekin batean grafikoak proiektatu ditu).

Historia pixka bat egitea ondo etorriko zaigu, gauzak kokatzeko. Datuak zuek udal gobernuan egon zineten aldiarekin konparatuko ditugu (2003-2007).

2004an alkateak 51.000 eurotik gora jasotzen zituen eta 2007an 57.000 eurora iritsi zen. Une honetan 34.000 euro dira.

2004an liberatu batek ia-ia 47.000 euro jasotzen zituen eta 2007an 53.000 eurora iritsi zen. Une honetan 29.000 euro dira.

EAJ/PNV-ren hauteskunde programan esaten zen alkatearen soldata UEDEL-ek esandakoa baino %10 gutxiagokoa izango zela, eta Eusko Jaurlaritzako zuzendariak jasotzen zutenaren antzekoa izango zela, 50.000 euro inguru.

Datuekin jarraituz, hauek ziren orain hemen dauden eta garai hartan liberaturik zeuden zinegotzi zenbaiten dietak:

2004, 2005 eta 2006, urteetan zinegotzi batek 15.000 eta 16.000 euro bitartean jaso zituen eta, alderdi bereko beste batek 10.000 eta 10.000 euro eta piko artean. Beste alderdi bateko zinegotzi batek 14.000 eta 15.000 euro artean jaso zituen eta PSEko zinegotzi batek 3.000 eta 3.600 euro artean.

%50eko lan-jarduna duen Bilduko zinegotzi baten soldata, proposatutako igoera aplikatuta, 14.600 eurokoa izango da.

Bilduk proposatzen duena da alkatearen eta zinegotzi baten liberazio osoa eta bi zinegotzi %50ean liberatuak.

Orain oposizioan zaudetenek 4 liberatu izan zenituzten.

Komenigarria izaten da historia erreparatzea, eta iruditu zaigu horrela eginez gauzak argiago ikusiko genituela denok.

Amonarraiz jaunak (EAJ/PNV) hau esan du:

Garbi zegoen kontu honekin etorriko zinetela. Guk 2011tik 2015era arte eutsiko genion pentsatzen genuenari eta hauteskunde programan esaten genuenari.

Zuek 2011ko uztailean gauza bat esan zenuten eta 4 hilabete beranduago zuen soldatak %40 igo dituzue. Hori hala da, lehen esan dituzuen datuak ere hala diren moduan.

Liberatuetako bat neu nintzen, eta bi arlo nituen nire ardurapean, eta gaur gaurko 30.000 euro + 14.000 euro kostatzen dute. Ikusiko dugu zer egiten den, baina proposamen honen errealitatea da 4 hilabetetan soldatak %40 igo direla, eta beste errealitatea bagenekien denok.

Bilduko Miner jaunak esan du ez dela egia guztira %40 igo direnik.

EAJ/PNV-ko Amonarraiz jaunak erantzun dio eman dieten dokumentaziotik hori ondorioztatzen dela.

Euskal Sozialistak taldeko Chica jaunak hau esan du:

Gehiago edo gutxiago kobratzea hori zuen kontua da. Zuek jartzen diozue soldata zuen buruari, baina egia dena da gobernatzeko beste modu batez hitz egiten hasi zenutela legegintzaldia, herrian politika egiteagatik kobratu beharrik ez zegoela esanez, eta egin zenuten lehenengo gauza izan zen zinegotzien dietak kentzea, baina kobratzen duzenak kobratzen duzue.

Beti defendatu dut udala kudeatuko duen jendea behar dela, baina 4 hilabetetan beste igoera bat onartzen diozue zuen buruari eta liberazio erdi bat gaineratu behar duzue, agian beharrezkoa izango dena, ez dakit, hori ikuskizun dago. Pentsatzen dut urte hasieran KPI-ren igoera aplikatuko duzuela, beste igoera bat; eta borondatezko lanaz hitz egingo duzue gero, hemen borondatez lan egiten dugun bakarrak oposizioko kideak gara.

Hurrengoa izango da 2 edo 3 aholkulari kontratatzea izango da, bat batean desagertu zirenak behar ez zirelako, eta hilabete barru aholkulariak izango ditugu. Onartzen dut agian beharrezkoak izatea, baina hori udalean planteatu duzuen zeuen politika edo filosofiaren kontra doa. Hor konpon pentsatzen eta egiten duzuenaren arteko dikotomiarekin.

Alkateak berretsi du gobernu taldearen lana borondatean oinarritzen dela, 9tik 5ek ez duelako dirurik jasotzen.

Bukatzeke alkate-lehendakariak Ogasun eta Ondare Batzordea-Kontuetaarako Batzorde bereziak 2011ko azaroaren 23an emandako irizpenaren bozketa egin du. Hona hemen emaitza.

\* Aldeko botoak: 9 (Bildu).

\* Kontrako botoak: 8 (3 Euskal Sozialistak, 3 EAJ-PNV, 2 H1!).

\* Abstentzioak: Bat ere ez.

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, erabaki hau hartu da:

1.) 2011ko Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren 11. artikulua 1. atala aldatzea, 2011ko azaroaren 1etik aurrerako ondorioekin. Aurrerantzean honela geratuko da:

11.1.- Beren kargua dedikazio osoarekin edo partzialarekin betetzen duten gobernu-taldeko Udalbatzako kideek jaso beharreko urteko ordainsariak honako hauek dira:

- Alkatea: 34.790 euro
- Kargua dedikazio partzialarekin betetzen duten Udalbatzako kideak: 29.245,86 euro dedikazio portzentaiarekiko

2) Erabakia jendaurrean ikusgai jartzea, 15 egun baliodunetz; epe horretan interesatuek erabakia aztertzeke aukera izango dute eta, nahi izanez gero, udalbatzari erreklamazioak aurkeztekoa.

3) Jendaurrean egondako arauzko epean inolako erreklamaziorik egin ez bada, erabakia behin betiko bihurtuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

## **12.- EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA.**

Lujanbio andreak Bilduk aurkeztutako mozio hau irakurri du.

“Euskararen nazioarteko eguna dela eta

Pertsonak, hizkuntzak eta kultura guztiak berdinak dira duintasunean. Guztiak behar dute berdintasunezko estatusa eta parekotasunezko egoera, mendetasunik gabe bizitzeko. Horretarako,

hizkuntza bakoitzari dagozkion nagusitasuna eta iraunkortasuna bermatu behar zaizkio bere lurralde osoan.

Euskaraz bizi den Euskal Herria gauza ona da denontzat. Ez du arriskuan jartzen euskaldunaren erdara(k). Ezta gaztelania eta frantsesaren garapen osoa ere euren lurralde historikoetan. Espainiak eta Frantziak ordea, gaztelania eta frantsesa inposatzen dituzte Euskararen Herrian eta trabak jartzen, euskaraz bizitzeko. Traba politikoak, juridikoak, ideologikoak, kulturalak eta soziolinguistikoak.

Euskal Herrian ireki den aro politiko berri honetan, hizkuntz gatazka konpontzea, lehentasunezkoa da. Hitz egin behar da hizkuntz asimilazioaz. Euskal Herrian gertatzen den gaztelania eta frantsesaren hedatze sozial izugarriaz. Bereizi behar dira, zein den hizkuntza horien zati onuragarria, - euskal herritarrentzat, euskaldunentzat eta Euskal Herriarentzat-, eta zein zati asimilagarria. Euskal Herriak du hitza eta erabakia.

Herritarrok gara euskara erabiltzeko eta Euskal Herri euskalduna berrosatzeko eragile, babesle eta berme. Horrenbestez, ezinbestekoa da herri gogoia indartzea. Euskararen alde egotetik "euskaraz bizi nahi dut"era pentsamendu aldatzea eta erdaraz egitetik "euskaraz egitera" portaera jiratzea eta eguneroko ohitura bihurtzea.

Beharrezkoa da gaurdanik, gure udalerrri honetan, euskarazko elebitasuna praktikan jartzea eta norabide horretan Udal honek ondorengo konpromisoak hartu eta deialdiak luzatu nahi ditu:

- 1.- Udal honek bere esku dagoen guztia egingo du bere zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenen langileen euskalduntzea bultzatu eta bermatzeko.
- 2.- Udal honek bere esku dagoen guztia egingo du bere zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenen langileen lehen hitza beti euskaraz izan dadin.
- 3.- Udal honek bere esku dagoen guztia egingo du bere barne funtzionamendua euskaraz izan dadin.
- 4.- Udal honek udalerrri honetako euskal komunitateak dituen hizkuntza eskubide indibidual eta kolektiboak bermatze aldera, gure herrian eta atal zein arlo ezberdinetan, euskaraz bizitzeko eskubidea helburu duen plangintza integrala garatzeko konpromisoa hartzen du."

Bozketa eginda mozioa ONARTU egin da (Euskal Sozialistak abstenitu egin dira).

Sozialisten bozeramaile Morcillo andreak azalpen hauek eman ditu:

"Hernaniko talde sozialistak Bilduren mozioaren kontra bozkatuko du, bat egiten dugulako Eusko Legebiltzarrak Euskararen Eguna dela eta legebiltzarreko talde guztiak ados zeudela, tartean Bilduko kide den Eusko Alkartasuna, egindako deklarazio instituzionalarekin.

Hori dela eta, Hernaniko talde sozialistak bat egiten du Euskararen Nazioarteko Egunarekin eta euskara eta elebitasuna sustatzea helburu duten neurri malgu eta egokiak bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu."

### **13.- EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE.**

Amenabar jaunak Bilduk aurkeztutako mozio hau irakurri du:



## “EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE

Une historiko bizi dugu Euskal Herrian. ETA erakundeak borroka armatua behin betiko uzteko konpromisoarekin, ziklo politiko berri bati hasiera emateko oinarria sendotu da. Azken hamarkadetan bizi izan dugun konfrontazio armatua behin betiko ixteko aukera eta eztabaida demokratikoan oinarritutako eskenatokiaren ateak ari dira irekitzen.

Gernikako Akordioan hitzartutakoari jarraiki, eta Aieten Nazioarteko Komunitateak zabalduak mandatuaren norabidean, ETAre erabakiak, gatazka politikoa, bake bidera eramateko aukera baten aurrean jarri gaitu. Normalizazio politikora bidean eman beharreko urratsetan, besteak beste, euskal preso politikoen eskubideen errespetua bermatu beharko da. Gernikako akordioaren hitzetan, ezinbestekoa da, “ Euskal preso politikoen aurka aplikatzen den espetxe-politika etetea, konfrontaziorako estrategia gisa erabili da-eta. Era berean, honako neurri hauek hartzea, amnistiarako bidean lehen urrats moduan, gatazka politikoa eragindako preso eta iheslari bat bera ere egon ez dadin: Preso guztiak Euskal Herrira ekartzea, dispertsioarekin amaituz, Gaixotasun larriak dituzten presoak aske uztea, Epaituak izateko zain dauden preso prebentiboek behin-behineko askatasuna ematea, Legeak ezarritakoak beteak dituzten zigortutako preso guztiei, baldintzapeko askatasuna ematea, Legeak jasotzen dituen espetxe-onurak aplikatzea, murrizketarik eta arbitrariotasunik gabe eta azkenik, Zigorra betetzeko muga berrogei urtetan ezartzen duen legedia indargabetzea”.

Euskal gizarteak urte asko daramatza, preso politikoen eskubideen bermeak eskatzen. Urteak, presoek aurkako neurriek senideengan dituzten ondorio larriak salatzen. Urteak, estatu espainiar zein frantsesari, beren legea betetzeko eskatzen.

Munduan eman diren prozesu politiko desberdinetan bezala, Euskal Herrian ere preso politikoen errealitateari konponbidea eman behar zaio. Era berean, konponbide politikoaren baitan, presoek ere parte izan behar dutelarik. Ziklo bat behin betikoz itxi eta etorkizunean aske egingo gaituen ziklo berria indarrez irekitzeko.

Azken asteetako hitz eta ekintzei begira jarritz, Madril eta Parisetik ez da egoera berriaren tamainako urratsik eman. Presoen dispertsioak bere horretan jarraitzen du. Senitartekoez milaka kilometro egiten jarraitzen dute. Hamarnaka euskal presoek, Parot Doktrinaren ondorioz, hil arteko zigorra betezen jarraitzen dute. Gaixotasun larriekin dauden hainbat preso baldintza kaxkarretan jarraitzen dute. Egoera hau errotik aldatzea eta atzerapenik gabeko urratsak ematea ezinbestekoa deritzogu.

Hori guztia kontuan hartuta, honako adierazpen hau aurkezten dugu, Hernaniko Udaleko Osoko Bilkura honetara, eztabaidatua eta onartua izan dadin:

- 1.- Udal honek, bizi dugun aukera historiko honen aurrean, Euskal Preso Politikoen eskubideen errespetua eskatzen du. Hala nola, besteak beste, dispertsioaren amaiera eta preso guztien Euskal Herriratzea, gaixotasun larriak dituzten presoek askatzea eta zigorra beteta dutenen askatzea.
- 2.- Udal honek datorren urtarrilaren 7an Euskal Preso Politikoen eskubideen alde burutuko den Manifestaldiarekin bat egiten du.
- 3.- Norabide horretan eta mobilizazio horren harira, abenduaren 16ean udal honetako hautetsiek baraua egin eta eguerdiko 12etan kontzentrazioa burutuko dugu.
- 4.- Gure udalerriko eragile guztiei deialdia luzatzen diegu urtarrilak 7ko mobilizazioarekin bat egin eta beronen eskutan dagoena egin dezaten bere ekimen kultural, sozial edo kirolaren alorrekoen ordutegiak berau indartze aldera kokatu ditzaten.

5.- Herritarrei deialdi zabal eta anitza luzatu nahi diegu ezberdintasun politiko guztien gainetik giza eskubideen alde urratsa eman eta herri honek inoiz ezagutu duen mobilizaziorik handiena denon artean osatu dezagun.”

Otaegi anderea EAJ/PNVk aurkeztutako mozio hau irakurri du:

Azken hamarkadetan, euskal herritarren gehiengoak, pertsona ororen giza eskubideen errespetua aldarrikatu eta eskatu du, zalantza gabe arbuiatu dituelarik beraien edonolako urraketak eta elkarrizketaren alde egin du gatazkak konpontzeko tresnatzat hartuz.

Euskal gizarteak demokrazia eta etika eskatzerakoan izan duen iraunkortasuna erabakiak hartzeraz bultzatzeko ezinbestekoa izan da, guztioi aro berri bati ekiteko aukera emateko. Indarkeriaren ondorioen aurrean, biktima eta presoaren aurrean, neurri berriak ezartzeko eta oinarri demokratikoak ez besterik erabiliz, gatazka politikoa konpontzeko aukerari heltzeko denbora.

Gaur, eta alferrikako min eta sufrimendu urte guzti hauen, ondoren Hernaniko Udalak ondorengo hau adostu du:

#### MOZIOA

- \* ETA-k Aieteko manifestuari erantzunez, behin betiko ekintza armatua utzi izana adieraztea, aintzat hartzen dugu.
- \* Berrito diogu beharrezkoa izango dela, adiskidetzean, aitorpenean, konpentsazioan eta biktima guztien laguntzan aurreratzea, sortutako mina aitortuz eta pertsonen eta gizartearen zauriak sendatzen lagunduz.
- \* Euskal presoak jasaten ari diren bere oinarritzko eskubideen urraketan aurrean, Eusko Legebiltzarrak, 2006ko urriaren 6an, euskal presoaren eskubideen defentsarako konpromisoari buruz onartutakoa, berresten du.”

Alkate jaunak bi mozioen bozketa bideratu du. Hona hemen emaitzak:

Bilduk aurkeztutako mozioa:

- \* Aldeko botoak: 9 (Bildu).
- \* Kontrako botoak: 8 (3 Euskal Sozialistak, 3 EAJ-PNV, 2 H1!).
- \* Abstentzioak: Bat ere ez.

MOZIOA ONARTU DA.

EAJ/PNVk aurkeztutako mozioa:

- \* Aldeko botoak: 5 (3 EAJ-PNV eta 2 H1!).
- \* Kontrako botoak: 3 (Euskal Sozialistak).
- \* Abstentzioak: 9 (Bildu).

MOZIOA ONARTU DA.

#### **14.- 2011KO AZAROAREN 6KO UHOLDEAK.**

Bilduk aurkeztu duen mozioa ikusita,

Amonarraiz jaunak (EAJ-PNV) esan du ados daudela, baldin eta Udalak bere gain hartzen dituen ekintzak aipatzen badira eta laguntzen kontzeptua "lantegiei" zabaltzen bazaie.

Euskal Sozialistak taldeko Morcillo andreak esan du ados dagoela EAJ-PNV-ren proposamenarekin.

Alkateak esan du bilera une batez eten egingo dela, proposatutako aldaketa horiek sartzeko. Bilerari berriz ekin zaionean honako mozio hau irakurri du eta aho batez onartu da:

"2011KO AZARAOREN 6KO UHOLDEAK DIRELA ETA

Pasa den azaroaren 6an Hernanik eta Euskal Herriko hainbat herrik izugarritzko uholdeak izan genituen. Urumea ibaiak gainezka egin eta bere inguruko lurra urpean hartu zituen. Karabel, Portu, Florida, Osiñaga, Fagollaga eta herriko beste hainbat auzotan uholdeen kalteak nabarmenak izan dira. Industriadetan ere lantegiek kalte larriak jasan dituzte Eziago, Ibai Ondo, Florida eta beste hainbat lekutan ere bai. Landare eta Zubipe kirol zelaiek ere, berriro, Urumeako uren kalteak jasan dituzte. Baratzak, sagastiak eta urak aurrean harrapatu duen guztia estali edo eraman du, Elorrabiko zubia kasu.

Kalteak ikaragarriak izan dira. Hernaniko herritarrak oraindik kalteen zenbatze lanetan ari gara. Eta uholde honen ondorioak larriak izango dira partikular, lantegi eta kaltetu oroengan. Are gehiago bizi dugun egoera ekonomiko kezkarri honetan.

Urumea ibaian uholdeen eraginak arintzeko edo zenbait lekutan ekiditeko egin beharreko lanak, Eusko Jaurlaritzak 2007an egindako azterketak jasoak ditu (Estudio Hidraulico). Dena den, aurtengo uholdeek azterketa zehatzago baten beharra agerian utzi dute 2007ko lanean aurreikusi gabeko hainbat leku urpean geratu baitira, Florida kasu.

Hau guztiagatik Hernaniko Udaleko Osoko Bilkurak hurrengo adierazten du:

- 1.- URA agentziak Urumea ibaian aurreikusitako lanak egiteko konpromisoa har dezala eskatzen dugu.
- 2.- Hernaniko herrian egin beharreko lanak egiteko Udalarekin hitzarmena sina dezala eskatzen dugu.
- 3.- Hernaniko Udalak herritarrei eta lantegiei laguntzeko bitartekoak eta giza baliabideak bideratzeko konpromisoa berresten du.
- 4.- Uholdeen kalteak jasan dituzten herritarrei eta lantegiei beharrezkoak diren laguntzak bidera ditzala eskatzen diegu Espainiako Gobernu, Eusko Jaurlaritza eta Diputazioari."

**EGUNEKO AZTERGAIETATIK KANPO, AHO BATEZ, PUNTU HAU SARTU DA:**

**14.2 BILDUK PERTSONAL BATZORDERAKO IZENDATUTAKO KIDEAREN ALDAKETAREN BERRI EMATEA.**

Alkate-lehendakariak jakinarazi du Pertsonal Batzorde informatzailearen bokal titularren izendapena aldatu egingo dela:

Gloria Mendinueta Yeregi beharrian Aitor Miner Aginaga izango da.

**15.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**- Euskal Sozialisten taldeak idatziz aurkeztutako ondoko galdera hauek irakurri ditu Chica jaunak:

.- Zer nolako aurreikuspenak dauzka Hernaniko Udalak datozen hiru urteetarako hondakin organikoen bilketari buruz, zenbat tona/urtean?

.- Zer epe aurreikusten du alkateak behar izango dela gure udalerrri inguruan materia organikoa tratatzeko planta bat izateko?

.- Zer nolako bilakaera izango du zaborren tasak datozen urteetan udal gobernuaren ustez?

.- Zergatik udal gobernuak ez die talde politikoei jakinarazi zein diren bere asmoak eta zein atzeurre egin dituzten orain arte hondakin organikoak Itsasura (Frantzia) eramateko?

Alkate jaunak (Bildu) hau esan du:

Euskal Sozialistek aurkeztutako idazkian bilera honetan erantzutekoak diren galdera sorta bat dago (Chica jaunak irakurri dituenak). Eta oraintxe erantzun behar ditut. Idatziz erantzuteko eskatu dizkigunak oraindik ez dauzkagu prest, baina erantzungo ditugu.

Lehenengo galderari dagokionez, esan beharra daukat zaila dela aurreikuspen bat egitea, baina orain arte jasotako datuak emango ditugu.

(Azalpenarekin batean grafikoak proiektatu ditu).

Hilean 125 tona inguru hondakin organiko jasotzen dira, baina kontuan izan behar da sistema honekin autokonpostajearen aldeko apustu garbia egiten dela. Horrek esan nahi du sortzen diren hondakin organikoen zati bat autokonpostatu egiten dela eta, horregatik zaila da aurreikuspen bat egitea. Gure asmoa autokonpostajea bultzatzea da.

Orain arte ez da arazorik izan Lapatzera eraman diren hondakin organikoekin, jasotzen dena kalitate onekoa delako.

2009. urteko daturik ez dago, garai hartan guk sistema orokorra deitzen dioguna zegoelako martxan, hau da, atez atekoaren aurrekoa. Ez dago daturik hondakinak nahasturik jasotzen zirelako.

Hauek dira biztanle bakoitzarengatik urtean jasotzen den hondakin organikoen kg kopurua:

- 2009: ez zen gaikako bilketarik egiten.
- 2010 (maiatzetik aurrera): 73'87.
- 2011 (urria arte): 75'85

Zaila da aurreikuspen bat egitea, baina bide horretatik joango da, izan ere, esan dudan moduan, autokonpostajea bultzatu nahi dugu eta autokonpostatzen duten pertsona kopurua handitzea lortuko dugu.

Baserrietan badago autokonpostatzeko ohiturarik, baina ez gaur egungo bitartekoekin, eta "Hernani osasuna atez-ate" kanpaina martxan jarri zenez geroztik, jende gehiago animatzen hasi zen.

Gai organikoen tratamendurako planta noiz eduki ahal izango dugun, bigarren galdera.

Zaila da epe bat esatea, baina gogorarazi behar da Gipuzkoako Partzuergoak, Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plan Integralean aurreikusia dagoenaren arabera, bi konpostatze planta ireki behar zituela (bat Txingudin) eta oraindik ez dira ireki.

Usurbilek konpostatzeko planta bat eraikitze baimena eskatu zuen, baina ez zioten eman eta gogorarazi behar da ez dela udalen eskumena, Partzuergoaren baizik, eta une horretan EAJ/PNV, H1! Y PSE-PSOE-ren esku zegoela.

Gu prest gaude udalerrian edo udalerritik hurbil konpostatzeko planta bat irekitzeko. Adituek diote tratamendu prozesuak zenbat eta hurbilago egon herritarrak orduan eta kontzientziatuagoak egoten direla.

Zaborren tasari buruzko galderari dagokionez, hirugarrena, ezin dugu prebisorik egin.

Ziurtatu dezakeguna da herritarrak gero eta arduratsuagoak izateko moduan kudeatuko dugula sistema, ahalik eta eraginkortasun handiena lortzeko.

Kontua da ez daudela gure esku prozesuan parte hartzen duten faktore guztiak, adibidez, errauskailuaren gaia, konpostatzeko planta eraikiko ote den, etab.

4. galderari dagokionez, aztertzen ari gara hondakin organikoak Iparraldera eramango ote diren, ez Frantziara. Egiten bada, jakinaraziko dizuegu.

Gaur gaurkoz Lapatxera eramaten dira eta egunen batean Itsasura eramaten badira ez da kostu aldetik diferentzia handirik izango. Distantzia 8 km inguru gehiagokoa da, 2 euro bidesarirako eta bidaia, baina konpentsatu egingo litzateke tratamenduaren mozketarekin.

Chica jaunak (Euskal Sozialistak) azalpenak eskertu ditu, baina jasota utzi nahi du ez dela erantzun zehatzik eman, eta proiektatutako grafikoaren kopia emateko eskatu du.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 19:50 orduetan bilera bukatutzat eman da eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatu dut.